

## Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2109

97/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan (2006ko maiatzaren 3koa) xedatutakoaren arabera, autonomia-erkidegoek Lege horretan araututako irakaspeneren curriculuma ezarriko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio irakaskuntzari dagokion guztia- ren gaineko eskumena, hau da, mailak eta graduak, modalitateak eta espezialitateak. Eskumen horretaz baliatuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu egin zuen Euskal Autonomia Erkidegorako Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma, eta urriaren 16ko 175/2007 Dekretua argitaratu zuen, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (azaroaren 13ko EHA).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urriaren 16ko 175/2007 Dekretua aldatu beharra ikusi du, koherentzia egon dadin oinarrizko itaerarekin finkatutako gutxienezko irakaskuntzen eta dekretu horren artean eta, halaber, elebitasun integratzaile bat egon dadin, Euskararen Normalizazioari buruzko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera (azaroaren 24koa), eta Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen arabera (otsailaren 19koa). Bi hizkuntza ofizialak ikasi beharra zehazten da bi lege horietan, familien aukera-askatasuna errespetatuz.

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, eta gaztelania ofizialak dira Euskadin eta horregatik herritar guztiek dute hizkuntza biok ezagutu eta erabiltzeko eskubidea derrigorrezko eskolatzeko-aldia amaitzean. Euskararen kasuan, irakaskuntza funtsezko ardatza izan da ezagutza zabaltzeko eta ardatz izaten jarraitu behar du. Hortaz, euskarak lehentasuna izan behar du hezkuntza-eremuan; izan ere, hizkuntza ofizial horren ezagutza urriagoa da dekretu honetan jasotako helburuetarako. Lehentasun hori bat etorriko da Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 txostenak ematen dituen gomendioekin.

Euskal Herria terminoa erabiltzeko modua ere aldatu da. XVI. mendeaz geroztik, termino hori eus-

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2109

DECRETO 97/2010, de 30 de marzo, por el que se modifica el Decreto que establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, dispone que las Comunidades Autónomas deben establecer el currículo de las enseñanzas reguladas en la misma. El Estatuto de Autonomía del País Vasco atribuye la competencia propia sobre la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades a la Comunidad Autónoma del País Vasco. En uso de dicha competencia, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación aprobó el currículo correspondiente a la Educación Primaria y a la Educación Secundaria Obligatoria en la Comunidad Autónoma del País Vasco y publicó el Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV del 13 de noviembre).

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación ha considerado la necesidad de introducir cambios en el Decreto 175/2007, de 16 de octubre, con el fin de asegurar la coherencia entre las enseñanzas mínimas establecidas con carácter básico y dicho Decreto, así como para facilitar un bilingüismo integrador acorde con lo dispuesto en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera y la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca en las que, desde el respeto a la libertad de elección de las familias, se establece el necesario aprendizaje de las dos lenguas oficiales.

El euskera, como lengua propia del Pueblo vasco, y el castellano tienen carácter de lenguas oficiales en Euskadi y por ello todos los habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas al final de la escolaridad obligatoria. En el caso del euskera la enseñanza ha sido un eje fundamental para la extensión de su conocimiento y debe seguir siéndolo. Por lo tanto, el euskera requerirá una atención preferente en el ámbito educativo por ser la lengua oficial cuyo conocimiento es más deficitario en relación a los propósitos recogidos en este Decreto. Atención preferente que estará en sintonía con las recomendaciones del informe Euskera 21 del Consejo Asesor del Euskera.

También se han introducido modificaciones relativas al uso del término Euskal Herria que queda fija-

kal literaturaren historiako zenbait testutan finkatuta dago –eta testu horietatik gizartean erabiltzera pasatu da–, hizkuntza- eta kultura-kontzeptu bat izendatzeko, baina ez lurralde-izatea edo izate politiko-administratiboa; kontzeptu hori, ostera, Euskal Autonomia Erkidegoa edo Euskadi terminoek jasotzen dute, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren edukien arabera.

Horren arabera, Euskadiko Eskola Kontseilua entzun ondoren eta nahitaezko txostenak igorri ondoren Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko martxoaren 30ean egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**– 175/2007 Dekretua aldatzea, urriaren 16koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzea.

175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzea, honela idatzita geratuko da:

Bat.– Hitzaurreko aldaketak.

Atariko laugarren, bosgarren eta hemeretzigarren paragrafoak ezabatuta geratuko dira.

Seigarren paragrafoa honela idatzita geratuko da:

«Lehen aldia da dekretu batek Oinarrizko Hezkuntza osoa arau bakarrean biltzen duela; hau da, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza batera hartzen dituela. Sarrera honetako lehen paragrafoan adierazi dugu derrigorrezko eskolaldia (6 urtetik 16 urtera bitartekoa) hartu dela erreferentziako hezkuntza-esparrutzat, eta haren izaera jarraitua nabarmendu da. Hala ere, eskolaldia, oro har, Haur Hezkuntzan hasten da. Hau da Oinarrizko Hezkuntzako etapen egiteko nagusia: ikasleei oinarri sendoak ematea, helduen bizitzako arazoei jakintasan nahikoz eta jakintza hori etengabe eguneratzeko gaitasun ez aurre egiteko presta daitezten.

«Hezkuntza-gaitasun orokorrak» dira Oinarrizko Hezkuntzaren prozesu osoa bideratzeko erreferentziardatz nagusiak. Halaber, Europar Batasuneko erakunde aburuz, «funtsezko gaitasunak» dira herritar guztiek lortu beharreko helburu komuna eta, ondorioz, horiek landu behar dira hezkuntza-etapa komun eta derrigorrezkoan. Hori guztia lantzen du III. eranskinak, oinarrizko araudiak erabilitako eskemari jarraituz. Horiek horrela, Oinarrizko Hezkuntzarako dekretu bakarrean arautu dira Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, prestakuntza-

do como un concepto lingüístico y cultural presente en algunos textos de la historia de la literatura vasca ya desde el siglo XVI, desde los que ha pasado al uso social, pero no como un ente territorial o político-administrativo, concepto que queda reservado a la Comunidad Autónoma del País Vasco o Euskadi, de conformidad con el contenido del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

En su virtud, emitidos los informes preceptivos correspondientes, oído el Consejo Escolar de Euskadi, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación del Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 30 de marzo de 2010,

#### DISPONGO:

**Artículo único.**– Modificación del Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco se modifica en los siguientes términos:

Uno.– Modificaciones introducidas en el preámbulo.

Se suprimen los párrafos cuarto, quinto y decimoveno del preámbulo.

El párrafo sexto queda redactado como sigue:

«Una de las aportaciones novedosas consiste en presentar un único Decreto para toda la Educación Básica que está formada por la Educación Primaria y la Educación Secundaria Obligatoria. Las reflexiones citadas en el primer párrafo de esta introducción, han considerado como ámbito educativo de referencia el periodo de escolaridad obligatoria, desde los 6 a los 16 años, considerándolo un continuo que tiene su iniciación como práctica generalizada en la Educación Infantil. La función de las distintas etapas que conforman la Educación Básica consiste en crear las bases sólidas para que los alumnos y alumnas se preparen para poder responder de forma competente y constantemente actualizada a los problemas de la vida adulta.

Las «competencias educativas generales» son los grandes ejes referenciales que sirven para orientar de forma integral todo el proceso de la Educación Básica. Asimismo, para la Unión Europea, las «competencias clave» son el objetivo común a lograr por toda la ciudadanía, y deben ser desarrolladas por tanto en el tramo educativo común y obligatorio. A todo ello se dedica el anexo III, al igual que se ha realizado en la normativa básica correspondiente. Por todo ello se ha optado por elaborar un único Decreto de Educación Básica que recoja las dos etapas que la forman, en-

prozesuaren izaera jarraitua islatzeko modurik onena baiteritzogu; gainera, horrela jokatuta, hezkuntza-eta bakoitzaren ezaugarri espezifikoek eusten zaie, ezaugarri horiek mantentzeko premia dagoen alderdi-etan».

Bi.– 3. artikulua hiru garren paragrafoa honela idatzita geratuko da:

«3.– Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arloek eta ikasgaiak beren barnean hartuko dituzte hezkuntza-gaitasun orokorrak; hala, jakintza-arloek zein ikasgaiak ikuspegi guztietatik landuko dituzte oinarrizko gaitasun horiek».

Hiru.– Hirugarren idatz-zatiko a) eta b) letrak eta 8. artikuluko laugarren f) letra honela idatzita geratuko dira:

«a) Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko eta gaztelaniazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, errealitatea interpretatzeko, eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea.

b) Zuzen, egoki eta oinarrizko autonomiaz ulertzea eta adieraztea atzerri-hizkuntza bateko edo gehiagoko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko.

f) Norberaren burua herritartzat hartzea, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea norberaren hizkuntza eta kulturari eta beste hizkuntza eta kulturari; hala, ikasleak, nortasun ugariak erreparatuta, bere nortasuna eraiki behar du, modu inklusiboan».

Lau.– 9. artikulua bigarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«2.– Dekretu honetako IV. eta V. eranskinetan jasotzen dira Lehen Hezkuntzako jakintza-arloen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak, eta, gainera, zehaztu egiten da zer-nolako ekarpena egiten duten oinarrizko gaitasunak eskuratzeko».

Bost.– 9. artikulua 3. idatz-zatia ezabatuta geratuko da.

9. artikulua 3. idatz-zatia ezabatuta geratuko da.

Sei.– 10. artikulua idatz-zati berria erantsiko zaio, bosgarrena, eta honela idatzita geratuko da:

«5.– Irakurketa ezinbesteko faktorea da oinarrizko gaitasunak garatzeko eta komunikaziorako gaitasuna sendotzeko. Lehen Hezkuntza ematen duten ikastetxeek, hezkuntza-jarduera antolatzeko orduan, egunean gutxienez hogeita hamar minutuko irakurketan denbora sartu beharko dute, etapako maila guztietan».

tendiendo que la continuidad del proceso formativo queda así mejor recogida, a la vez que mantiene las especificidades lógicas de cada etapa en los aspectos que así lo requieran».

Dos.– El párrafo tercero del artículo 3 queda redactado del siguiente modo:

«3.– Las áreas de conocimiento y las materias de la Educación Básica integrarán las competencias educativas generales y desarrollarán las competencias básicas en todas sus dimensiones».

Tres.– Las letras a) y b) del apartado tercero y la letra f) del apartado cuarto del artículo 8 quedan redactadas del siguiente modo:

«a) Comprender y expresar con corrección, propiedad, autonomía y creatividad textos y mensajes orales y escritos, en euskera y castellano, utilizándolos para comunicarse, organizar los propios pensamientos, interpretar la realidad y reflexionar sobre los procesos implicados en el uso del lenguaje, así como iniciarse en la lectura, el conocimiento y el estudio de la literatura.

b) Comprender y expresar con corrección, propiedad y autonomía básica, textos y mensajes orales y escritos en una o más lenguas extranjeras, utilizándolos para comunicarse, para organizar los propios pensamientos y reflexionar sobre los procesos implicados en el uso del lenguaje.

f) Identificarse como ciudadano en un entorno multicultural, valorando de forma positiva tanto la lengua y cultura propias como otras lenguas y culturas, para que a partir de las identidades múltiples construya cada uno su propia identidad de forma inclusiva».

Cuatro.– El apartado segundo del artículo 9 queda redactado del siguiente modo:

«2.– Los objetivos, contenidos y criterios de evaluación de las distintas áreas de Educación Primaria y de las materias de Educación Secundaria Obligatoria se incluyen en los anexos IV y V del presente Decreto, así como su aportación a la adquisición de las competencias básicas».

Cinco.– Supresión del apartado 3 del artículo 9.

Se suprime el apartado 3 del artículo 9.

Seis.– Se añade un nuevo apartado, quinto, al artículo 10 con la siguiente redacción:

«5.– La lectura constituye un factor primordial para el desarrollo de las competencias básicas y la consolidación de la competencia comunicativa. Los centros que impartan Educación Primaria, al organizar la práctica docente, deberán garantizar la incorporación de un tiempo diario de lectura, no inferior a treinta minutos, a lo largo de todos los cursos de la etapa».

Zazpi.– 12. artikulua bigarren, hirugarren eta laugarren idatz-zatiak honela idatzita geratuko dira:

«2.– Horiez gainera, lehen mailatik hirugarren mailara bitartean, ikasgai hauek irakatsiko dira:

Natura Zientziak

Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza

Plastikaren eta ikusizkoen hezkuntza

Musika

Teknologiak

Lehen eta bigarren mailetan, lehen hezkuntzaren azken zikloan baino bi jakintzagai gehiago ikasi ahal izango dira, gehienez.

Hirugarren mailan, ikastetxeek bi ikasgai hauetan bana dezakete Natura Zientzien ikasgaia: batetik, Biologia eta Geologia, eta, bestetik, Fisika eta Kimika. Ikasgai hori, hala ere, ikasgai bakartzat joko da, ikasleak mailaz igaroko duen ala ez erabakitzeko.

Irakasgai batzuen trataera zehatza gorabehera, denetan jorratuko dira irakurmena, mintzamena eta idazmena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta baloreetan heziko da, batez ere gizon-emakumeen berdintasunari eta emakumeen kontra biolentziarik ez eragiteari dagokionez.

Irakurketa ezinbesteko faktorea da oinarritzko gaitasunak garatzeko eta komunikaziorako gaitasuna sendotzeko. Ikastetxeek ikasgai guztien hezkuntza-jardueran bermatu behar dute irakurketari eskainitako denbora, maila guztietan.

3.– Laugarren mailan, lehen puntuan adierazitako ikasgaiez gain, Etika eta gizabide hezkuntza irakatsiko da.

Maila horretan, Matematika ikasgaia bi eduki-aukeretan antola dezakete ikastetxeek, ikaslearen egoerari erreparatuta; hau da, ikasleak maila hori amaitzean Matematika ikasten jarraituko duen ala ez.

Ikasturte honetako irakasgai batzuen trataera zehatza gorabehera, denetan jorratuko dira irakurmena, mintzamena eta idazmena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta baloreetan heziko da, batez ere gizon-emakumeen berdintasunari eta emakumeen kontra biolentziarik ez eragiteari dagokionez.

4.– Adierazitako ikasgaiez gain, hautazko ikasgaiak, aukera askekoak eta errefortzuko edo indartzeko ikasgaiak izango dira, hurrengo atalean eta 26. artikuluan adierazten den moduan. Lehen hiru mailetan hautazko ikasgairen bat ikasi ahal izango da. Laugarren mailan hautazko ikasgai bat edo gehiago egin ahal izango dira».

Siete.– Los apartados segundo, tercero y cuarto del artículo 12 quedan redactados como sigue:

«2.– Además, en los cursos primero a tercero se impartirán:

Ciencias de la Naturaleza

Educación para la ciudadanía y los derechos humanos

Educación Plástica y Visual

Música

Tecnologías

En cada uno de los cursos primero y segundo los alumnos cursarán un máximo de dos materias más que en el último ciclo de Educación Primaria.

En el tercer curso los centros podrán desdoblarse la materia de Ciencias de la Naturaleza en dos materias diferentes: «Biología y Geología» por un lado y «Física y Química» por otro. En todo caso, la citada materia mantendrá su carácter unitario a efectos de promoción.

Sin perjuicio del tratamiento específico en algunas de las materias, la comprensión lectora, la expresión oral y escrita, la comunicación audiovisual, las tecnologías de la información y la comunicación, y la educación en valores se trabajarán en todas ellas, especialmente en lo que se refiere a la igualdad de mujeres y hombres y la no violencia contra las mujeres.

La lectura constituye un factor primordial para el desarrollo de las competencias básicas y la consolidación de la competencia comunicativa. Los centros deberán garantizar en la práctica docente de todas las materias un tiempo dedicado a la misma en todos los cursos.

3.– En cuarto curso, a las indicadas en el punto primero, se añadirá la Educación ético-cívica.

En este curso los centros podrán organizar la materia de Matemáticas en dos opciones de diferente contenido, en función del carácter terminal o propedéutico que dicha materia tenga para cada alumno.

Sin perjuicio del tratamiento específico en algunas de las materias de este curso, la comprensión lectora, la expresión oral y escrita, la comunicación audiovisual, las tecnologías de la información y la comunicación, y la educación en valores se trabajarán en todas ellas, especialmente en lo que se refiere a la igualdad de mujeres y hombres y la no violencia contra las mujeres.

4.– Además, habrá materias optativas, de libre elección y de refuerzo, según se indica en el apartado siguiente y en el artículo 26. En el conjunto de los tres primeros cursos se podrá cursar alguna materia optativa. En cuarto curso se podrá cursar una o más materias optativas».

Zortzi.– 13. artikulua honela idatzita geratuko da:

«1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak neurriak hartuko ditu hezkuntza-sistema elebiduna sendotzeko eta ikasleek, Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna eskuratuko dutela bermatzeko. Xede hori lortzeko, ikastetxeek euskara eta gaztelania landuko dituzte Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleek eskura ditzaten bi hizkuntza horiek ulertzeko eta ahoz eta idatziz adierazteko trebetasunak. Xedea da bi hizkuntza horiek harremanetarako eta erabilerako hizkuntzak izatea eta eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan erabiltzea.

2.– Aurreko idatz-zatian adierazitako helburuak lortzeko, ikastetxeek, beren hizkuntza-proiektua aintzat hartuta, beren ezaugarrietara moldatu eta egokituko dute dekretu honek egindako curriculum-planteamendua; halaber, aintzat hartuko dute hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela bide egokiena elebitasunaren helburua lortzeko eta jakintza-arlo eta ikasgai bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko.

3.– Elebitasuna oinarri hartuta, ikasle eleanitzak sortzeko xedea erdiesteko, atzerri-hizkuntzen ikaskuntza eta erabilerak finkatzeko neurriak ezarriko dituzte ikastetxeek, eta bermatu egingo dute bete egiten direla bi hizkuntzetarako ezarrita dauden gaitasun-mailak. Ikastetxeek aukera izango dute zenbait ikasgai atzerri-hizkuntza horietan irakasteko, horretarako arautzen diren baldintzak betez.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aukera emango du ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasitako hizkuntzen jakintza-ziurtagiri ofizialak eskuratzeko proba homologatuak egin ditzaten, eta, horrekin batera, sustatu egingo du Batxilergo egingo ez duten ikasleek hizkuntzak ikasi ahal izan ditzaten.

5.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere eskuduntzen arabera erabakiko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko baimendutako atzerriko zentroek irakatsi beharreko espainiar eta euskal hizkuntza eta kultura, Espainian dauden atzerriko zentroen erregimenari buruz 806/1993 Errege Dekretuak (maiatza-ren 28koa) dioenaren arabera».

Bederatzi.– 16. artikulua bigarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«2.– Mailaz igaro gabeko ikasleak edo hezkuntza-sistemara berandu sartu diren ikasleak izateagatik, talderen batek gehienezko ratioa gainditu ahal izango du, baina taldeak ezingo du ehuneko hamarrean baino handiagoan gainditu adierazitako ratioa».

Hamar.– 16. artikulua hirugarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

Ocho.– El artículo 13 queda redactado del siguiente modo:

«1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, adoptará las medidas oportunas tendientes a la consolidación de un sistema educativo bilingüe, para conseguir la competencia comunicativa en las lenguas oficiales de la Comunidad al acabar el período de Educación Básica. A tal fin los centros incorporarán el euskera y el castellano en la Educación Básica para conseguir una capacitación real en las destrezas de comprensión y expresión, oral y escrita, en las dos lenguas, de tal manera que ambas puedan utilizarse como lenguas de relación y uso en todo tipo de ámbitos personales, sociales o académicos.

2.– Para el logro de los objetivos señalados en el apartado anterior, cada centro concretará y adaptará a sus circunstancias los planteamientos curriculares establecidos en el presente Decreto, teniendo en cuenta su proyecto lingüístico y considerando el tratamiento vehicular de las distintas lenguas como medio idóneo para conjugar en cada caso el objetivo del bilingüismo con el de la transmisión de los contenidos curriculares propios de cada área y materia.

3.– Para avanzar hacia el objetivo de conseguir, desde el bilingüismo, alumnos y alumnas plurilingües, los centros implantarán medidas de refuerzo del aprendizaje y utilización de lenguas extranjeras, garantizando los niveles de competencia previstos para las dos lenguas oficiales. Para ello podrán incluir la impartición de algunos contenidos o materias en dichas lenguas extranjeras en las condiciones que se determinen.

4.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación posibilitará la realización de pruebas homologadas para obtener la certificación oficial del conocimiento de las lenguas cursadas por los alumnos en Educación Secundaria Obligatoria y promoverá el acceso a las correspondientes enseñanzas de idiomas para quienes no sigan estudios de Bachillerato.

5.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación determinará, de acuerdo con sus competencias, las enseñanzas de lengua y cultura española y vasca que deban impartir los centros extranjeros autorizados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme a lo previsto en el Real Decreto 806/1993, de 28 de mayo, sobre régimen de centros extranjeros en España».

Nueve.– El apartado segundo del artículo 16 queda redactado como sigue:

«2.– En algunas unidades se podrá exceder ese número como consecuencia de la permanencia del alumnado no promocionado o para atender a alumnado de incorporación tardía, siempre que este exceso no supere el diez por ciento de la ratio indicada».

Diez.– El apartado tercero del artículo 16 queda redactado del siguiente modo:

«3.– Irakasle/ikasgela erlazioa handitu ahal izango da, ikasleen ezaugarriei erreparatuta eta ikastetxearen programa eta proiektu baimenduei erreparatuta».

Hamaika.– 20. artikuluari hiru idatz-zati berri gehitu, seigarrena, zazpigarrena eta zortzigarrena, eta honela idatzita geratuko da:

«6.– Ikastetxeetako hezitzaileek autonomia izango dute hezkuntza-maila horretan erabili behar den material didaktikoa aukeratzeko, betiere Dekretu honen eranskinean ezarritako curriculumera egokitzen badira.

7.– Testuliburuak eta bestelako materialak eskuratu eta argitaratzeko ez da beharko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimenik. Nolanahi ere, liburu eta materialon zorrotzasun zientifikoa eta hizkuntza egokitu egin beharko dira ikasleen adinera eta dekretu honetan araututako curriculumera. Era berean, islatu eta sustatu egin beharko dituzte gure ordenamendu juridikoaren printzipio, balore, askatasun, eskubide eta betebeharrak, baita lege hauetan jasotako printzipio eta baloreak ere: otsailaren 19ko 1/1993 Legean –Euskal Eskola Publikoarenean–, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan –Hezkuntzari buruzkoan– eta abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan –Genero Biolentziaren kontra guztiz babesteko neurriei buruzkoan–; izan ere, hezkuntza-jarduera lege horietara egokitu behar da.

8.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio ikastetxeek beren pedagogia-autonomia erabiliz aukeratutako testu-liburuak eta gainerako curriculum-materialak ikuskatzea, ikaskuntzako eta irakaskuntzako elementu guztiak ikuskatzeko ohiko prozesuaren baitan».

Hamabi.– 28. artikulua bigarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailan has daitezke ikasleak programa horietan parte hartzen. Programa horietan parte har dezakete, halaber, bigarren maila amaitu ondoren, hirugarren mailara igarotzeko moduan izan ez eta Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzan maila bat errepikatu duten ikasleak. Dena dela, ikasleak programa horietan sartzeko, beharrezkoa izango da haien ebaluazio akademikoa eta psikopedagogikoa egitea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako moduan, eta, programan sartu aurretik, ikasleari eta haren familiari entzun beharko zaie».

Hamahiru.– 28. artikulua seigarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«6.– Programa amaituta, ikasleren batek ez baditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko baldintzak bete, ikasleak aukera izango du 32.3 artikulua araututakoa baino urtebete gehiago jarraitzeko programan».

«3.– La relación profesor/aula podrá incrementarse teniendo en cuenta las características del alumnado atendido y los diferentes programas y proyectos autorizados en el centro».

Once.– Se añaden tres nuevos apartados, sexto, séptimo y octavo al artículo 20 con la siguiente redacción:

«6.– El profesorado de los centros docentes tendrá autonomía para elegir los materiales didácticos que hayan de usarse en este nivel educativo, siempre que se adapten al currículo establecido en el anexo de este Decreto.

7.– La edición y adopción de los libros de texto y demás materiales no requerirán la previa autorización del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. En todo caso, éstos deberán adaptarse al rigor científico e idoneidad lingüística adecuados a las edades de los alumnos y al currículo regulado en este Decreto. Asimismo, deberán reflejar y fomentar el respeto a los principios, valores, libertades, derechos y deberes de nuestro ordenamiento jurídico, así como los principios y valores recogidos en la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación y en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género, a los que ha de ajustarse toda la actividad educativa.

8.– Corresponde al Departamento de Educación, Universidades e Investigación la supervisión de los libros de texto y otros materiales curriculares adoptados por los centros en el ejercicio de su autonomía pedagógica, como parte del proceso ordinario de inspección sobre la totalidad de elementos que integran el proceso de enseñanza y aprendizaje».

Doce.– El apartado segundo del artículo 28 queda redactado como sigue:

«2.– Podrán participar en estos programas los alumnos y las alumnas desde tercer curso de Educación Secundaria Obligatoria. Asimismo, podrán hacerlo quienes, una vez cursado segundo, no estén en condiciones de promocionar a tercero y hayan repetido ya una vez en la Educación Secundaria Obligatoria. En todo caso, su incorporación requerirá la evaluación tanto académica como psicopedagógica en los términos que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación establezca, y se realizará una vez oído el propio alumno o alumna y su familia».

Trece.– El apartado sexto del artículo 28 queda redactado como sigue:

«6.– El alumnado que al finalizar el programa no esté en condiciones de obtener el título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria podrá permanecer en el programa un año más de lo establecido en el artículo 32.3».

Hamalau.– 32. artikuluairen hirugarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«3.– Oro har, ikasleek eskubidea izango dute hezertortzi urte betetzen dituzten urteko ikasturtera arte eskolatuak izateko eskola-erregimen arruntean».

Hamabost.– 32. artikuluairen laugarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«4.– Salbuespenez, Irakaskuntza Berritzeko zuzendariak baimena eman dezake ikasleek 19 urte bete arte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan jarraitzeko, baldin eta ikasleak heziketa bereziko geletan eskolatu badaude ikastetxe arruntetan, edota ikusteko eta entzuteko ezintasunen edo ezintasun fisikoen ondorioz hezkuntza-premiak badituzte, edota hezkuntza bereziko laguntza espezializatua jasotzen badute».

Hamasei.– 34. artikuluairen bigarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaroko da lortutzat jotzen badira eskuratu beharreko oinarriko gaitasunak eta heldutasun-maila. Hezkuntza-etapa horretara igaroko da, halaber, ikasleak ikasi ez dituen ikasketek ez badute eragozten hurrengo zikloa behar bezala aprobetxatzea. Kasu horretan, laguntza emango zaio ikasleari, aurreko hezkuntza-etapan ikasi gabekoak ikas ditzan.

Ez badira betetzen aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak, ikaslea ezingo da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaro; hala ere, Lehen Hezkuntzan urte bat gehiago eman duen ikaslea igaro daiteke».

Hamazazpi.– 34. artikuluairen laugarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«4.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, mailaz igarotzen ez den ikasleak urtebete gehiago eman beharko du maila berean. Neurri horiek hartuta, plan bat egin beharko da, ikasle bakoitzarentzat berariazkoa, aurreko ikasturtean hautemandako zailtasunak gainditzeko. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak araututako jarraibideak betez antolatuko dute ikastetxeek plan hori. Ikasleak behin bakarrik errepikatu ahal izango du maila bera, eta gehienez bi maila errepikatu ahal izango ditu etaparen barruan. Salbuespenez, bigarren aldiz errepika daiteke laugarren maila, hezkuntza-etapako aurreko mailarik errepikatu ez bada».

Hemezortzi.– 34. artikuluairen bosgarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«5.– Bigarren maila-errepikapena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailan egin behar badu ikasleak, urtebetez luza daiteke dekretu honetako 32.3 artikulua araututako adin-muga».

Hemeretzi.– 34. artikuluairen seigarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

Catorce.– El apartado tercero del artículo 32 queda redactado como sigue:

«3.– Con carácter general, los alumnos y alumnas tendrán derecho a permanecer en régimen ordinario hasta los dieciocho años de edad cumplidos en el año en que finalice el curso».

Quince.– El apartado cuarto del artículo 32 queda redactado del siguiente modo:

«4.– Excepcionalmente, la Directora de Innovación Educativa podrá autorizar la permanencia en la Educación Secundaria Obligatoria hasta los 19 años de los alumnos y alumnas escolarizados en aulas de educación especial en centros ordinarios, de quienes tengan necesidades educativas especiales ligadas a una discapacidad física, visual o auditiva y de quienes reciban apoyos especializados de educación especial».

Dieciséis.– El apartado segundo del artículo 34 queda redactado del siguiente modo:

«2.– Se promocionará a la Educación Secundaria Obligatoria si se ha alcanzado el desarrollo correspondiente de las competencias básicas y el adecuado grado de madurez. Se accederá, asimismo, siempre que los aprendizajes no alcanzados no impidan seguir con aprovechamiento la nueva etapa. En este caso, el alumnado recibirá los apoyos necesarios para recuperar dichos aprendizajes.

Cuando no se cumplan las condiciones señaladas en el párrafo anterior, no se podrá promocionar a Educación Secundaria Obligatoria excepto si se ha permanecido ya un año más en la Educación Primaria».

Diecisiete.– El apartado cuarto del artículo 34 queda redactado del siguiente modo:

«4.– En la Educación Secundaria Obligatoria, quien no promocione deberá permanecer un año más en el mismo curso. Esta medida deberá ir acompañada de un plan específico personalizado, orientado a la superación de las dificultades detectadas en el curso anterior. Los centros organizarán este plan de acuerdo con lo que establezca el Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Podrá repetirse el mismo curso una sola vez y dos veces como máximo dentro de la etapa. Excepcionalmente podrá repetir una segunda vez en cuarto curso si no ha repetido en cursos anteriores de la etapa».

Dieciocho.– El apartado quinto del artículo 34 queda redactado del siguiente modo:

«5.– Cuando la segunda repetición deba producirse en el último curso de la etapa de Educación Secundaria Obligatoria, podrá prolongarse un año el límite de edad establecido en el artículo 32.3 de este Decreto».

Diecinueve.– El apartado sexto del artículo 34 queda redactado del siguiente modo:

«6.– Maila errepikatu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ez baditu betetzen hurrengo mailara igarotzeko baldintzak, irakasle-taldeak, orientazio-taldeak aholkatuta eta familiarekin hitz egin ondoren, egoki dena erabakiko du dauden aukeren artean, eta, betiere, ikaslearen premiei errepikatuta».

Hogei.– 35. artikulua bigarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«2.– Hezkuntza-etapa horretako ikasgai guztiak gaintzen dituzten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua jasoko dute. Halaber, titulu hori lortuko dute, ikasturtea amaituta, ikasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek. Salbuespenez, titulu hori lortuko dute hiru ikasgaitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek, baldin eta irakasle-taldeak uste badu, ikasgaien izaerari eta garrantziari errepikatuta, ikasgai horiek ez gaintu arren, ikasle horiek oinarriko gaitasunak eta etapako helburuak lortuak dituztela. Titulua lortu ez duten ikasleek aukera izango dute, hurrengo bi ikasturteetan, aparteko proba bat egiteko, gaintu gabeko ikasgaietan, baldin bost baino gehiago ez badira».

Hogeita bat.– Bigarren xedapen gehigarriaren laugarren idatz-zatia ezabatu egingo da.

2. xedapen gehigarriaren 4. idatz-zatia ezabatu egingo da.

Hogeita bi.– Bigarren azken xedapenaren 1. idatz-zatia ordeztu egingo da.

Bigarren azken xedapenaren lehen idatz-zatia ordeztu eta honela idatzita geratuko da:

«1.– Azaroaren 24ko 10/1982 Legean –Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrikoan Legean– ezarritakoaren arabera, unibertsitateaz kanpoko edozein mailako ikasleak Euskara eta Literatura ikastetik edo ebaluatzetik salbuetsi ahal izango dira, baldin eta Euskara eta Literatura irakasgaia edo arloa jasotzen ez duen hezkuntza-sistema baten hasi badira ikasten edo behar bezala justifikatzen badu dute Euskal Autonomia Erkidegoa ez dela euren ohiko bizilekua. Halakoetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko du zein baldintzatan salbuesten diren. Edozelan ere, hori arautzean, ahaleginak egingo dira ahalik eta ikaslerik gehienek jarrai dezaten euskara ikasten, eta kontuan hartuko dira, besteak beste, ikasleen historial akademikoa, ingurunearen ezaugarri soziolinguistikoa eta zein hezkuntza-mailatan hasten diren ikasleak».

Hogeita hiru.– III. eranskina aldatzea. Oinarriko gaitasunak. Zortzigarren eta bederatzigarren paragrafoak honela idatzita geratuko dira:

«Hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarriko gaitasunak euskal curriculumean jasota eta horien integrazioa eginda, berariaz azpimarratu behar dira ezinbestekotzat hartzen diren ikaskuntzak, planteamendu integratzaile bat eginez eta eskuratuta».

«6.– Si, tras la repetición, el alumno o alumna de Educación Secundaria Obligatoria no cumpliera los requisitos para pasar al curso siguiente, el equipo docente, asesorado por el de orientación y previa consulta a la familia, decidirá entre las diferentes opciones existentes para la continuación de los estudios del alumnado, según sus necesidades e intereses».

Veinte.– El apartado segundo del artículo 35 queda redactado como sigue:

«2.– Quienes superen todas las materias de esta etapa obtendrán el título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria. Asimismo podrán obtener dicho título aquellos que hayan finalizado el curso con evaluación negativa en una o dos materias, y excepcionalmente en tres, si el equipo docente considera que la naturaleza y el peso de las mismas en el conjunto de la etapa no les ha impedido alcanzar las competencias básicas y los objetivos de la etapa. Quienes no hayan obtenido la titulación podrán realizar una prueba extraordinaria de las materias que no hayan superado siempre que el número de éstas no sea superior a cinco, durante los dos años siguientes».

Veintiuno.– Supresión del apartado cuarto de la disposición adicional segunda.

Se suprime el apartado cuarto de la disposición adicional segunda.

Veintidós.– Sustitución del apartado primero de la Disposición final segunda.

Se sustituye el apartado primero de la disposición final segunda por la siguiente redacción:

«1.– De acuerdo con lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, el alumnado de los distintos niveles de enseñanza no universitaria que haya iniciado sus estudios en un sistema educativo que no incluya el área o materia de Lengua vasca y literatura o que justifique debidamente su residencia no habitual en la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá ser eximido de la enseñanza o evaluación de la Lengua vasca y literatura en los términos que determine el Departamento de Educación, Universidades e Investigación. En todo caso en dicha regulación, que buscará que el mayor número de alumnado siga la enseñanza del euskera, se tendrá en cuenta, entre otros factores, el nivel educativo al que se incorpora el alumno o alumna, su historial académico y las características socio-lingüísticas del entorno».

Veintitrés.– Modificación del anexo III. Competencias básicas. Los párrafos octavo y noveno quedan redactados de la siguiente manera:

«La incorporación e integración de las competencias educativas generales y de las competencias básicas en el currículo vasco debería permitir poner el acento en aquellos aprendizajes que se consideran imprescindibles, desde un planteamiento integrador y orienta-



ko jakintzen aplikazioa xedetzat hartuta. Oinarrizko gaitasunak lantzeko, hezkuntza-sistemako ikasketei norabide jakin bat eman behar zaie, ikasleek jarduteko modu anitz balia ditzaten eta egoera berriei aurre egiteko ahalmena eskura dezaten. Oinarrizko Hezkuntzaren amaieran lortu beharko liriteke oinarrizko gaitasunak, gizaki heldua izateko behar den neurrian. Gerora, gaitasun horiek garatu, mantendu eta eguneratu egin behar dira, bizitza osoko ikaskuntza baten zatitzat jota.

Europako Parlamentuak 2006ko irailaren 26an emandako gomendioari erantzunez, eta kontuan hartuz, batetik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak oinarrizko hezkuntzarako marko arautzaile berria ezarri duela, eta, bestetik, «Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum» eta «Euskal Herrirako Curriculum» izeneko proposamenak plazaratu direla, Euskal Autonomia Erkidegoak erabaki du Oinarrizko Hezkuntza taxutzen duten xedapen arauemailetan hezkuntza-gaitasun orokorren eta oinarrizko gaitasunen esparru hauek txertatzea».

Hogeita lau.– III.4 eranskina aldatzea. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna honela idatzita geratuko da:

«4.– Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Gaitasun honen funtsa hizkuntza erabiltzea da, ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitzeko eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa ere.

Gaitasun honi dagozkion jakintzek, trebetasunek eta jarrerak bide ematen dute pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak adierazteko, elkarrizketan aritzeko eta iritzi kritikoak eta etikoak osatzeko, ideiak sortzeko, jakintza egituratzeko, diskurtsoari eta norberaren ekintzei eta egitekoei koherentzia eta kohesioa emateko, erabakiak hartzeko eta ahozko nahiz idatzizko entzunaldiez, irakurraldiez nahiz mintzaldiez gozatzeko. Horrek guztiak, gainera, autoestimua eta norberarenganako konfiantza handitzen laguntzen du.

Komunikatzeko eta elkarrizketan aritzeko, harreman eta lotura eraikitzaileak sortu behar dira pertsonekin eta ingurunearekin; orobat, kultura berrietara gerturatzea eskatzen du jarduera horrek, eta, kultura horiek ezagutu ahala, handitu egiten da kultura horiekiko ardura eta errespetua. Nabarmena da, horrenbestez, bizikidetzarako eta gatazkak konpontzeko ahalmenarekin erabat loturik dagoela hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Entzuteko, azalpenak emateko eta elkarrizketan aritzeko gai izanda, hitzeko harreman nagusien jabe egiten gara, era bateko eta besteko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko mezuak adierazteko eta ulertzeko gaitasuna eskuratzen dugu, eta komunikazioa testuinguru bakoitzera egokitzeko ahalmena geureganatzen dugu. Hala, komunikazio-egoera bako-

do a la aplicación de los saberes adquiridos. Hacer hincapié en las competencias básicas exige orientar los aprendizajes para conseguir que el alumnado desarrolle diversas formas de actuación y adquiera la capacidad de enfrentarse a situaciones nuevas. Las competencias básicas deberían alcanzarse al final de la Educación Básica en la medida necesaria para la vida adulta y seguir desarrollándose, manteniéndose y actualizándose, como parte de un aprendizaje a lo largo de toda la vida.

En respuesta a la recomendación del Parlamento Europeo, de 26 de septiembre de 2006, teniendo en cuenta que la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, ha establecido un nuevo marco regulador para la educación básica, y las propuestas «Currículo Vasco para el periodo de la escolaridad obligatoria» y «Currículo para el País Vasco», la Comunidad Autónoma de Euskadi ha acordado incluir en las disposiciones normativas que ordenan la Educación Básica los siguientes ámbitos de competencias educativas generales y de competencias básicas».

Veinticuatro.– Modificación del anexo III.4. La Competencia en comunicación lingüística queda redactada de la siguiente manera:

«4.– Competencia en comunicación lingüística.

Esta competencia se refiere a la utilización del lenguaje como instrumento de comunicación oral y escrita, de representación, interpretación y comprensión de la realidad, de construcción y comunicación del conocimiento y de organización y autorregulación del pensamiento, las emociones y la conducta.

Los conocimientos, destrezas y actitudes propios de esta competencia permiten expresar pensamientos, emociones, vivencias y opiniones, así como dialogar, formarse un juicio crítico y ético, generar ideas, estructurar el conocimiento, dar coherencia y cohesión al discurso y a las propias acciones y tareas, adoptar decisiones, y disfrutar escuchando, leyendo o expresándose de forma oral y escrita, todo lo cual contribuye además al desarrollo de la autoestima y de la confianza en una y uno mismo.

Comunicarse y conversar son acciones que suponen habilidades para establecer vínculos y relaciones constructivas con los demás y con el entorno, y acercarse a nuevas culturas, que adquieren consideración y respeto en la medida en que se conocen. Por ello, la competencia de comunicación lingüística está presente en la capacidad efectiva de convivir y de resolver conflictos.

Escuchar, exponer y dialogar implica ser consciente de los principales tipos de interacción verbal, ser progresivamente competente en la expresión y comprensión de los mensajes orales que se intercambian en situaciones comunicativas diversas y adaptar la comunicación al contexto. Supone también la utilización activa y efectiva de códigos y habilidades lin-

terako egokiak diren ahozko testuak sortzeko, behar bezala eta eraginkortasunez erabili behar dira hizkuntzakoak diren eta ez diren kodeak eta trebetasunak, eta komunikaziorako harremanek egoera bakoitzean bete beharreko arauak.

Irakurritz eta idatziz, indartu egiten dira informazioa bilatzeko, biltzeko eta prozesatzeko trebetasunak; hala, jarduera horiek lagundu egiten dute askotariko asmo komunikatibo edo sorkuntzakoak dituzten testuak behar bezala ulertzen, sortzen eta erabiltzen. Irakurketak erraztu egiten du idatzizko hizkuntza erabiltzeko kodea interpretatzeko eta ulertzeko prozesua, eta, gainera, plazer-, jakituria- eta fantasia-iturri da, eta beste ingurune, hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen du. Horrek denak, komunikaziorako gaitasuna mantentzen eta hobetzen laguntzen du.

Hizkuntza-komunikazioko ekintzetako (elkarrizketa, irakurketa, idazketa, etab.) xedeak eta helburuak hautatzeko eta aplikatzeko trebetasuna zuzenean dago lotuta gaitasun honen alderdi nagusiekin; esaterako, norberaren errepresentazio mentalak egitearekin, errealtatea interpretatu eta ulertzearekin eta norberaren jakintzak eta ekintzak koherentziaz antolatu eta erregulatzerekin.

Mezuak ulertzea eta komunikatzen jakitea jakintza praktikoak dira, baina hizkuntzari eta haren erabilera-arauei buruzko ezagutza erreflexiboa eduki behar dute oinarrian, eta horrek berariaz eskatzen du hizkuntza behaketarako eta azterketarako objektutzat hartzen jakitea. Era askotariko gizarte- eta kultura-testuingurueta komunikazio-egoerei egokiak zaizkien diskurtsoak adierazteko eta interpretatzeko, beharrezkoa da hizkuntza-sistemaren funtzionamenduarauak eta hizkuntza-interakzio egokiak izateko estrategiak ezagutzea eta behar bezala aplikatzea.

Gaitasun hori eskuratzeko, hauek ezagutu behar dira: hizkuntzarekin lotutako gizarte-ohiturak, hizkuntzaren kultura-balio eta -alderdiak, eta hizkuntzak testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera har ditzakeen aldaerak. Ahalmen hauek ere izan behar dira: beste pertsona batzuen egoeran jartzeko ahalmen enpatikoa; norberarenak ez bezalako iritzia sentikortasunez eta ikuspegi kritikoz irakurtzeko, entzuteko, aztertzeo eta aintzat hartzeko ahalmena; norberaren ideiak eta emozioak funtsean eta formaz egoki adierazteko ahalmena, eta kritika eraikitzaileak onartzeko eta egiteko ahalmena.

Atzerriko hizkuntzen komunikazio-gaitasunari dagozkion jakintza eta formalizazioa –batik bat, idatzizkoa– bestelako maila batean kokatzen dira, eta hizkuntza horietakoren batean komunikatzeko ahalmena izatea eskatzen dute. Hizkuntza horiek jakinda, aberastu egiten dira gizarte-harremanak eta norberak berezkoak ez dituen testuinguruetan mugitzeko ahalmena eskuratzen da. Atzerriko ikasleen atzerri-hizkuntzen kasuan ere, hizkuntza horiei eutsita, bul-

güísticas y no lingüísticas y de las reglas propias del intercambio comunicativo en diferentes situaciones, para producir textos orales adecuados a cada situación de comunicación.

8.2.– Utiliza los derechos recogidos en la declaración de Derechos Humanos para enjuiciar acontecimientos y situaciones de discriminación y violencia.

8.3.– Expresa posiciones claras a favor de la igualdad de derechos y deberes rechazando estereotipos, prejuicios y roles que supongan discriminación o conculcación de los derechos humanos.

8.4.– Valora los derechos humanos como conquistas históricas.

8.5.– Ea aintzat hartzen dituen gerra-gatazketako biktimak, terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak, eskola edo laneko jazarpenaren biktimak edo beste motako bateko indarkeria-ekintzen biktimak, eta ea haiekiko enpatia eta hurbiltasuna erakusten duen.

9.– Espainiako Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak finkatzen dituzten printzipio demokratikoak hautematea eta tokiko zein nazioarteko erakunde politiko batzuen antolaketa, funtzioak, eta aukeraketa-modua deskribatzea.

9.1.– Ea positiboki onartzen dituen demokraziaren parte-hartzeko mekanismoak (instituzionala, asoziacionismoa, boluntarioritza).

9.2.– Ea demokrazia erlazionatzen duen ikasgela-aren eta ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu-arekin.

9.3.– Ea parte hartzen duen bere inguru hurbileko bizitza demokratikoa hobetzeko ekintzetan.

9.4.– Ea Espainiako Konstituzioa eta Autonomia Estatutua ezagutzen dituen eskubideen eta betebeharren iturri gisa.

10.– Globalizazioaren ezaugarriak eta komunikabideek bertan duten zerikusia identifikatzea, norbera bizi den gizartearen eta munduko beste lekuetako pertsonen bizitzaren arteko harremanez ohartzeara.

10.1.– Ea deskribatzen dituen globalizazioaren oinarriko ezaugarriak askotariko mundu batean.

10.2.– Ea garbi adierazten dituen berezko zer arrisku dituzten komunikabideetatik ateratako informazioak eta komunikazio elektronikoaren bidez lortutakoak.

10.3.– Ea lotzen dituen aniztasuna eta herritartasun globala.

10.4.– Ea positiboki balioesten duen aniztasunak eskaintzen duen aberastasuna mundu global batean.

11.– Gatazkek daudela jakitea, nazioarteko erakundearen zeregina ezagutzeara eta, gatazka horiek konpontzeko, konpromiso pertsonalaren, legeen eta nazioarteko konbentzioen garrantzia balioestea.

11.1.– Ea identifikatzen dituen nazioartean egun dauden gatazkek.

11.2.– Ea balioesten duen nazioarteko komunitatearen jardura gatazkek konpontzeko.

11.3.– Ea ezagutzen dituen Giza Eskubideen Deklarazioan finkatutakoa betetzeko ardura duten erakundeak».

Hirurogeita hamalau.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza. Etika eta gizarte-hezkuntza. Edukiak eta ebaluazio-irizpideak.

8.5.– Reconoce a las víctimas de conflictos bélicos, víctimas del terrorismo, víctimas de violencia de género, víctimas de acoso escolar o laboral o cualquier otro tipo de víctima de actos de violencia y muestra empatía y acercamiento hacia su realidad.

9.– Reconocer los principios democráticos y las instituciones fundamentales que establece la Constitución Española y el Estatuto de Autonomía y describir la organización, funciones y forma de elección de algunas instituciones políticas, tanto en el ámbito local como internacional.

9.1.– Reconoce positivamente los diferentes mecanismos de participación de la democracia (institucional, asociacionismo, voluntariado).

9.2.– Relaciona la democracia con la organización y funcionamiento del aula y del centro.

9.3.– Toma parte en actividades que ayudan a mejorar la vida democrática de su entorno inmediato.

9.4.– Identifica la Constitución Española y el Estatuto de Autonomía como fuentes de reconocimiento de derechos y deberes.

10.– Identificar las características de la globalización y el papel que juegan en ella los medios de comunicación, reconocer las relaciones que existen entre la sociedad en la que vive y la vida de las personas de otras partes del mundo.

10.1.– Describe los rasgos básicos de la globalización en un mundo diverso.

10.2.– Explicita los riesgos inherentes en la información que se extrae de los medios de comunicación y en la obtenida a través de comunicación electrónica.

10.3.– Relaciona diversidad y ciudadanía global.

10.4.– Valora positivamente la riqueza que ofrece la diversidad en un mundo global.

11.– Conocer la existencia de conflictos y el papel que desempeñan en los mismos las organizaciones internacionales y valorar la importancia del compromiso personal, las leyes y convenios internacionales en su resolución.

11.1.– Identifica los conflictos internacionales actuales.

11.2.– Valora la actuación de la comunidad internacional en la resolución de los conflictos.

11.3.– Reconoce los organismos que velan por el cumplimiento de lo establecido en la Declaración de los Derechos Humanos».

Setenta y cuatro.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Educación para la ciudadanía y los derechos humanos. Educación ético-cívica. Contenidos y Criterios de evaluación.

Etika- eta gizarte-hezkuntza ikasgaiaren edukiak eta ebaluazio-irizpideak honela idatzita geratuko dira:

«Etika- eta gizarte-hezkuntza.

Edukiak.

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

– Gatazkak tratatzea elkarrizketa eta negoziazioaren bidez. Bitartekotza.

– Ingurune hurbileko arazoen edo arazo globalen inguruan eta egungo gaien inguruan eta dilema etikoak eta gizabidezkoen inguruan debateak prestatzea eta egitea, dauden iritzi eta aukerei buruz hausnartzuz.

– Egungo gertakari edo gai bati buruz emandako informazioak konparatiboki analizatzea eta kritikoki ebaluatzea.

– Bidegabekeriez eta desberdintasunez ohartzea. Bizimodu bidezkoagoak bilatzeko eta izateko ahaleginak. Ikastetxearen eremuan zein kanpoan elkartzun-proiektuetan parte hartzea.

– Hitzaldiak egitean besteen ikuspuntuak barnean hartzea, horiekiko desadostasuna azalduz edo horiek guztiz edo neurri batean onartuz.

– Taldeko lan-proiektuak diseinatzen, antolatzen eta martxan jartzen laguntzea, eta norberaren ahalegina autoebaluatzea.

2. eduki-multzoa. Nortasuna eta bestetasuna. Hezkuntza afektibo-emozionala.

– Adimena, sentimenduak eta emozioak. Norberaren nortasuna, askatasuna eta erantzukizuna. Norbanakoen desberdintasunak errespetatzea.

– Pertsonen arteko harremanak. Indarkeria baztertzea pertsona arteko gatazkei aurre egiterakoan.

– Bizikidetzarako trebetasun eta jarrera sozialak. Norberaren ez bezalakoak diren bizimoduak errespetatzea, bai eta pertsonen eskubideak ere.

3. eduki-multzoa. Teoria etikoak.

– Giza eskubideak.

– Teoria etikoak.

– Giza eskubideak hartzea giza jokaerarako erreferentzia unibertsaltzat. Herritar-eskubideak eta eskubide politikoak. Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Giza eskubideen eboluzioa, interpretazioak eta defentsa eraginkorra.

– Gizarte- eta kultura-desberdintasunak. Intolerantzia, bereizkeria, xenofobia eta bazterkeriari uko egitea.

4. eduki-multzoa. Etika eta politika. Demokrazia. Konstituzio-balioak.

– Demokrazia eta herritarren parte-hartzea.

Los contenidos y criterios de evaluación de la Educación ético-cívica quedan redactados de la siguiente manera:

«Educación Ético-Cívica.

Contenidos.

Bloque 1. Contenidos comunes.

– Tratamiento dialogado y negociado de los conflictos. La mediación.

– Preparación y realización de debates sobre problemas del entorno inmediato o de carácter global, sobre cuestiones de actualidad y dilemas ético-cívicos, considerando las posiciones y alternativas existentes.

– Análisis comparativo y evaluación crítica de informaciones recibidas, sobre un mismo hecho o cuestión de actualidad.

– Reconocimiento de las injusticias y las desigualdades. Interés por la búsqueda y práctica de formas de vida más justas. Participación en proyectos que impliquen solidaridad dentro y fuera del centro.

– Incluir puntos de vista de sus iguales en la elaboración de discursos, bien polemizando con ellos o integrándolos total o parcialmente.

– Colaboración en el diseño, organización y desarrollo de proyectos de trabajo colectivos y autoevaluación del propio esfuerzo.

Bloque 2. Identidad y alteridad. Educación afectivo-emocional.

– Inteligencia, sentimientos y emociones. Identidad personal, libertad y responsabilidad. Respeto a las diferencias personales.

– Las relaciones interpersonales. Rechazo de la violencia como solución a los conflictos interpersonales.

– Habilidades y actitudes sociales para la convivencia. Respeto por las formas de vida diferentes a las propias y por los derechos de las personas.

Bloque 3. Teorías éticas.

– Los Derechos Humanos.

– Las teorías éticas.

– Los Derechos Humanos como referencia universal para la conducta humana. Derechos cívicos y políticos. Derechos económicos, sociales y culturales. Evolución, interpretaciones y defensa efectiva de los Derechos Humanos.

– Las diferencias sociales y culturales. Rechazo de las actitudes de intolerancia, discriminación, xenofobia, injusticia y exclusión.

Bloque 4. Ética y política. La democracia. Los valores constitucionales.

– Democracia y participación ciudadana.

– Erakunde demokratikoak: oinarriak eta funtzionamendua. Ordenamendu juridikoa bizikidetzazko tresna gisa.

– Konstituzioaren balioak. Herritar-eskubideen eta -betebeharren arteko egokitasuna.

5. eduki-multzoa. Egungo munduko gizarte-arazoak.

– Zenbait kolektiboren bereizkeria (etniagatik, orientazio sexualagatik, pobreziazatik, etab.). Giza eskubideetan oinarritutako balioespen etikoa. Jarduera-proposamenak.

– Globalizazioa eta garapen-arazoak. Boterea eta komunikabideak. Herritartasun globala. Lankidetzazko giza eskubideen alde borrokatzen duten mugimenduak.

– Gatazka armatuak eta horiek konpontzeko nazioarteko komunitateak duen jokoera. Terrorismoa. Bakea ezartzeko, mantentzeko edo sendotzeko jarduerak.

– Ingurumen-krisialdia: garapen iraunkorra lortzeko borroka.

6. eduki-multzoa. Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasuna.

– Berdintasuna eta aniztasuna.

– Emakumezkoek pairatzen duten bereizkeriaren zergatiak eta faktoreak. Eskubide-berdintasuna eta egitatezko berdintasuna.

– Bereizkeriari eraso egiteko mekanismoak. Emakumezkoen aurkako indarkeriari aurre egiteko prebentzio eta babes integrala.

Ebaluazio-irizpideak.

1.– Jokaerak eta aukerak arrazoitzea, zuzenki komunikatzea, errespetuz, eta gatazka-egoeretan elkarriketara eta bitartekotzara jotzea.

1.1.– Ea bere jokaeraren arrazoiak azaltzen dituen.

1.2.– Ea sentimenduak eta iritzia errespetuz adierazten dituen.

1.3.– Ea gatazka-egoeretan elkarriketaz eta bitartekotzaz baliatzen den.

2.– Pertsonen dimentsio moralaren oinarritzko ezaugarriak bereiztea (arauak, balio-hierarkia, ohiturak, etab.), bai eta arazo moral nagusiak ere.

2.1.– Ea kontzeptu moral hauek definitzen dituen: araua, balioa, balio-hierarkia, ohitura, ongia.

2.2.– Ea egoera zehatzak arazo moral orokorrekin erlazionatzen dituen.

3.– Teoria etiko nagusiak identifikatzea eta azaltzea.

– Instituciones democráticas: fundamento y funcionamiento. El ordenamiento jurídico como instrumento de regulación de la convivencia.

– Los valores constitucionales. Correspondencia entre derechos y deberes ciudadanos.

Bloque 5. Problemas sociales del mundo actual.

– La discriminación de distintos colectivos (étnicos, de orientación sexual, pobres, etc.). Valoración ética desde los Derechos Humanos. Propuestas de actuación.

– La globalización y los problemas del desarrollo. Poder y medios de comunicación. Ciudadanía global. Cooperación. Los movimientos comprometidos en la defensa de los Derechos Humanos.

– Los conflictos armados y la actuación de la comunidad internacional en su resolución. El terrorismo. Actuaciones para establecer, mantener o consolidar la paz.

– La crisis medio ambiental: la lucha por un desarrollo sostenible.

Bloque 6. La igualdad entre hombres y mujeres.

– Igualdad y diversidad.

– Causas y factores de la discriminación de las mujeres. Igualdad de derecho y de hecho.

– Mecanismos para combatir la discriminación. Prevención y protección integral frente a la violencia contra las mujeres.

Criterios de Evaluación.

1.– Razonar las motivaciones de las conductas y elecciones, comunicarse adecuadamente, con respeto, y practicar el diálogo y la mediación en las situaciones de conflicto.

1.1.– Explicita las razones que motivan su conducta.

1.2.– Comunica respetuosamente sentimientos y opiniones.

1.3.– Practica el diálogo y la mediación en las situaciones de conflicto.

2.– Diferenciar los rasgos básicos que caracterizan la dimensión moral de las personas (normas, jerarquía de valores, hábitos, etc.) y los principales problemas morales.

2.1.– Define los conceptos morales: norma, valor, jerarquía de valores, hábito, bien.

2.2.– Relaciona situaciones concretas con problemas morales generales.

3.– Identificar y expresar las principales teorías éticas.

3.1.– Ea deskribatzen dituen teoria etiko nagusien printzipioak orokorki.

3.2.– Ea, arazo etikoak sorrarazten dituen egoera baten aurrean, zenbait teoria etikoren arabera hainbat erantzun proposatzen dituen.

4.– Giza eskubideak giza jokaeraren erreferentzia etiko nagusitzat hartzea, herritarren eskubideek, politikoez, ekonomikoez, sozialez eta kulturez izan duten eboluzioa ezagutzeko eta horiek aktiboki erabiltzearen eta betetzearen aldeko jarrerak izatea.

4.1.– Ea banakako jokaerak eta jokaera kolektiboko giza eskubideen arabera epaitzen dituen.

4.2.– Ea deskribatzen duen eskubide horiek historian zehar nola eboluzionatu duten.

4.3.– Ea horien aldeko ekintzarik proposatzen duen.

5.– Balio demokratikoak onartu eta sustatzea eta demokrazia-sistemaren egitura ezagutzeko antolamendu politiko gisa.

5.1.– Ea demokraziaren oinarriko balioak adierazten dituen.

5.2.– Ea gelako eta ikastetxeko antolakuntzarekin eta funtzionamendurekin erlazionatzen duen demokrazia.

5.3.– Ea eskubide eta betebeharrak demokratikoak erabiltzen eta betetzen dituen, parte hartzen duenean.

5.4.– Ea azaltzen duen demokrazia-sistemaren ideia.

5.5.– Ea bere ingurune hurbileko bizitza demokratikoa hobetzeko jardueretan parte hartzen duen.

6.– Eguneko munduko arazo nagusiak (pobrezia, herrialde aberatsen eta pobreen arteko harremanak, gerrak, demografia, ingurumena hondatzea, espezieak desagertzea, etab.) eragiten dituzten arazoak aztertzea, komunikabideek emandako informazioa kritikoki erabiliz, eta bizimodu bidezkoagoak defendatzen dituzten irtenbideak identifikatzea.

6.1.– Ea munduko gizarte-arazo nagusiak beren zergatiarekin lotzen dituen.

6.2.– Ea hainbat iturritako informazioa erabiltzen duen.

6.3.– Ea gizarte-arazoen arazoak argumentatzen dituen, informazio hori oinarritzat hartuta.

6.4.– Ea garapen iraunkorraren ideia gizarte-arazo horien konponbidearekin lotzen duen.

6.5.– Ea arazo horiek arintzen eta desagerrarazten laguntzeko jarduerak proposatzen dituen.

7.– Berdintasunaren eta aniztasunaren arteko erlazioa ezagutzeko, eta bereizkeriaren zergatiak eta faktoreak identifikatzea.

3.1.– Describe en general los principios de las principales teorías éticas.

3.2.– Propone diferentes respuestas a una misma situación éticamente problemática de acuerdo a diferentes teorías éticas.

4.– Reconocer los Derechos Humanos como principal referencia ética de la conducta humana e identificar la evolución de los derechos cívicos, políticos, económicos, sociales y culturales, manifestando actitudes a favor del ejercicio activo y el cumplimiento de los mismos.

4.1.– Enjuicia las conductas individuales y colectivas en función de los Derechos Humanos.

4.2.– Describe la evolución histórica de estos derechos.

4.3.– Propone acciones en favor de los mismos.

5.– Reconocer y fomentar los valores que informan la democracia y conocer la estructura de sistema democrático como forma de organización política.

5.1.– Señala los valores básicos de la democracia.

5.2.– Relaciona la democracia con la organización y funcionamiento del aula y del centro.

5.3.– Ejerce sus derechos y deberes democráticos cuando participa.

5.4.– Explica la idea de «sistema democrático».

5.5.– Toma parte en actividades que ayudan a mejorar la vida democrática de su entorno inmediato.

6.– Analizar las causas que provocan los principales problemas sociales del mundo actual (pobreza, relaciones entre países ricos y pobres, guerras, demografía, degradación ecológica, desaparición de especies, etc.), utilizando de forma crítica la información que proporcionan los medios de comunicación e identificar soluciones comprometidas con la defensa de formas de vida más justas.

6.1.– Relaciona los problemas sociales mundiales con causas.

6.2.– Maneja información de diferentes fuentes.

6.3.– Argumenta las causas de los problemas sociales partir de esta información.

6.4.– Relaciona la idea de desarrollo sostenible con la solución a esos problemas sociales.

6.5.– Propone actuaciones que colaboren a paliar y eliminar esos problemas.

7.– Conocer la relación entre igualdad y diversidad e identificar las causas y factores de discriminación.

7.1.– Ea berdintasunaren eta aniztasunaren arteko bateragarritasuna arrazoitzen duen.

7.2.– Ea bereizkeria-egoerak antzematen dituen, eguneroko bizitzako ohiko egoeren artean.

7.3.– Ea bereizkeriaren arrazoi posibleak adierazten dituen (jatorria, etnia, orientazio afektibo-sexuala, etab.).

7.4.– Ea berariaz baztertzen dituen egoera horiek.

8.– Emakumezkoen eskubideak defendatzea eta eskubide horiek eguneroko bizitzan gizonezkoenekin berdintzea (etxean, lanean, kulturean, etab.); emakumezkoak gutxiesten dituzten edo horiekiko bereizkeria eragiten duten adierazpenak baztertzea, eta genero-indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.

8.1.– Ea iritzi garbiak adierazten dituen emakumezkoen eta gizonezkoen eskubide-berdintasunaren alde.

8.2.– Ea baztertzen dituen emakumezkoen gutxi-espena eta bereizkeria eragiten duten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak.

8.3.– Ea garbi gaitzesten dituen emakumezkoek pairatzen dituzten indarkeria-egoerak.

8.4.– Ea azaltzen duen elementu kulturalen (estereotipoak, rolak, etab.) eta emakumezkoen bereizkeriaren arteko erlazioa.

8.5.– Ea proposatzen dituen bereizkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako jarduerak.

9.– Informazio-iturri ugari erabiltzea eta horietaz baliatzea bere planteamenduak defendatzeko, eta arazo eta egoera tokikoen zein globalen inguruko deba-teetan bere kideen iritziei eta aukerei buruz hausnartztea.

9.1.– Ea iturri ugariatik lortzen duen informazioa, Internet sarea barne.

9.2.– Ea lortutako informazioa irakasleak emandako irizpideen arabera aztertzen duen.

9.3.– Ea informazio hori eta beste iritzi eta argudiatze batzuk erabiltzen dituen bere gogoetetan eta ikuspuntuetan.

9.4.– Ea, argudiatzean, gutxieneko zorrotasunez parte hartzen duen deba-teetan».

Hirurogeita hamabost.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Teknologiak. Lehenbiziko mailatik hirugarrenera. Edukiak.

2. eduki-multzoa honela idatzita geratuko da:

«2. eduki-multzoa. Erabilera teknikoko materialak.

– Material naturalak eta eraldatuak. Material bigunak, zurak, metalak, plastikoak, material zeramikoak eta harrizkoak. Bizi-zikloa.

– Propietateak eta erabilerak.

7.1.– Argumenta la compatibilidad entre la igualdad y la diversidad.

7.2.– Identifica situaciones de discriminación entre las típicas de la vida diaria.

7.3.– Relaciona la discriminación con alguna causa (origen, etnia, afectivo-sexual, etc.).

7.4.– Rechaza explícitamente esas situaciones.

8.– Defender los derechos de las mujeres y su equiparación con los de los hombres en la realidad diaria (doméstica, laboral, cultural, etc.), rechazar las manifestaciones que las minusvaloren y discriminan y mostrar una actitud activa en contra de la violencia de género.

8.1.– Expresa posiciones claras a favor de la igualdad de derechos entre mujeres y hombres.

8.2.– Rechaza estereotipos, prejuicios y roles que supongan minusvaloración y discriminación de la mujer.

8.3.– Rechaza explícitamente las situaciones de violencia de las que son víctimas las mujeres.

8.4.– Explica la relación entre elementos culturales (estereotipos, roles, etc.) y discriminación de las mujeres.

8.5.– Propone actuaciones en contra de la discriminación y violencia de género.

9.– Utilizar diferentes fuentes de información y valerse de ellas en la argumentación para defender sus planteamientos y considerar las posiciones y alternativas de sus compañeros y compañeras en los debates que se planteen sobre problemas y situaciones de carácter local o global.

9.1.– Obtiene información de fuentes diversas, incluyendo la red Internet.

9.2.– Filtra la información obtenida de acuerdo a criterios ofrecidos por el profesor o profesora.

9.3.– Utiliza esa información y otras opiniones y argumentaciones asumiéndolas en sus reflexiones y puntos de vista.

9.4.– Interviene en los debates con un mínimo de rigor argumentativo».

Setenta y cinco.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Tecnologías. Cursos primero a tercero. Contenidos.

El Bloque 2 de contenidos queda redactado de la siguiente manera:

«Bloque 2. Materiales de uso técnico.

– Materiales naturales y transformados. Materiales blandos, maderas, metales, plásticos, cerámicos y pétreos. Ciclo de vida.

– Propiedades y aplicaciones.



– Material horiek osatzeko tresnen eta tekniken erabilera.

– Metalaren teknologiak Euskadin duen garrantzia».

Hirurogeita hamasei.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Teknologiak. Lehen, bigarren eta hirugarren mailak. Edukiak.

Edukien 4. multzoa honela idatzita geratu da:

«4. multzoa. Egiturak eta mekanismoak.

– Egitura hauskaitzak: zurruntasuna, egonkortasuna, grabitate-zentroa. Motak.

– Egitura baten elementuak eta haiek jasaten dituzten esfortzuak. Inguruko zenbait adibide.

– Makina bakunak eta transmisio-mekanismoak, eta higiduraren transformazioa.

– Transmisio-erlazioaren algoritmoaren aplikazioa.

– Eragile mekanikoen portaera simulatzen duten programen erabilera.

– Horrelako eragileak dituzten maketak eraikitzea.

– Euskadin historian zehar egindako eraikuntzen adibideak».

Hirurogeita hamazazpi.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Teknologiak. Lehenbiziko mailatik hirugarrenera. Edukiak.

5. eduki-multzoa honela idatzita geratuko da:

«5. eduki-multzoa. Energia eta haren transformazioa. Makinak.

– Energia-motak, energia batetik besterako transformazioak.

– Energia-iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak.

– Energia elektrikoaren sorkuntza, garraioa eta banaketa. Euskadiko adibideak.

– Etxebizitzen instalazioetan eta haien funtzionamenduan esku hartzen duten elementuak aztertzea. Energia aurrezteko estrategiak.

– Makinak eta instalazioak simulatzeko muntaiak.

– Historian zehar Euskadin energia eraldatzeko erabilitako sistemen adibideak».

Hirurogeita hamazortzi.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Teknologiak. Lehen, bigarren eta hirugarren mailak. Ebaluazio-irizpideak.

13. ebaluazio-irizpidea honela idatzita geratu da:

«13.– Gaur egungo konponbide teknologiko eta profesionalak konponbide tradizionalekin alderatzea,

– Empleo de herramientas y técnicas de conformación de dichos materiales.

– Importancia de la tecnología del metal en Euskadi».

Setenta y seis.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Tecnologías. Cursos primero a tercero. Contenidos.

El Bloque 4 de contenidos queda redactado de la siguiente manera:

«Bloque 4. Estructuras y mecanismos.

– Estructuras resistentes: rigidez, estabilidad, centro de gravedad. Tipos.

– Elementos de una estructura y esfuerzos a los que están sometidos. Ejemplos del entorno.

– Máquinas simples y mecanismos de transmisión y transformación de movimiento.

– Aplicación del algoritmo de la relación de transmisión.

– Uso de programas simuladores del comportamiento de los operadores mecánicos.

– Construcción de maquetas que incluyan este tipo de operadores.

– Ejemplos de construcciones en Euskadi a lo largo de la historia».

Setenta y siete.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Tecnologías. Cursos primero a tercero. Contenidos.

El Bloque 5 de contenidos queda redactado de la siguiente manera:

«Bloque 5. Energía y su transformación. Máquinas.

– Tipos de energía, transformaciones entre uno y otro.

– Fuentes de energía, renovables y no renovables.

– Generación, transporte y distribución de la energía eléctrica. Ejemplos en Euskadi.

– Análisis de los elementos que configuran las instalaciones de las viviendas y su funcionamiento. Estrategias para el ahorro energético.

– Montajes de simulación de máquinas e instalaciones.

– Ejemplos de sistemas de transformación de la energía en Euskadi a lo largo de la historia».

Setenta y ocho.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Tecnologías. Cursos primero a tercero. Criterios de evaluación.

El criterio de evaluación 13 queda redactado de la siguiente manera:

«13.– Contrastar las soluciones tecnológicas y profesionales actuales con las tradicionales, centrándose

Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta, ekar dezaketenen onurak eta kalteak balioesteko eta haien kontzientzia hartzeko.

13.1.– Transformatu gabeko materialak (lurra, zura, harria eta abar) eta material landuak (metalak, zeramika, beira, hormigoia, plastikoak, konpositeak...) eraikuntzan, artisautzan eta abarretan denboran zehar nola erabili diren identifikatzen eta alderatzen du.

13.2.– Material horien erabileraren zenbait adibide jartzen ditu, eta Euskal Herriko material-kulturarekin lotutako zenbait irtenbide teknologiko espezifiko aipatzen ditu, bai historian zehar izan direnak (euskal etxe, arrantza, nekazaritza, artisautza eta industria tradizionalak) bai gaur egungoak.

13.3.– Historiako eta gaur egungo energia-iturriak eta teknologiak (giza indarra, abereena, indar mekanikoa, elektrikoa, elektronikoa,...) identifikatzen eta alderatzen ditu.

13.4.– Tradizionalki Euskadin izan diren eta gaur egun diren zenbait ekoizpen-arazo (meatzaritzan, errementaritzan, karegintzan, burdinoletan, errotetan,...) konpontzeko zer energia-iturri eta teknologia erabili diren zehazten du».

Hirurogeita hemeretzi.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Teknologiak. Laugarren maila. Edukiak.

Edukien 7. multzoa honela idatzita geratuko da:

«7. multzoa. Teknologia eta Gizartea.

– Teknologia giza beharrei erantzuteko. Objektuen eta tresnen eboluzioa Zientziaren, Teknogiaren eta Gizartearen garapenarekin. Ingurunekeo ekoizpen teknologikoen adibideak. Euskadiko Zentro teknologikoak.

– Teknologiak garapen ekonomikoari, Kulturalari eta sozialari egindako ekarpenak.

– Zerikusia duten lanbide ta gaitasun teknologikoak.

– Teknologia eta Ingurugiroa. Garapen iraunkorren azturak hartzeko ohitura».

Laurogei.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Latina. Edukiak.

Edukien 4. multzoa honela idatzita geratu da:

«4. multzoa. Mundu klasikoa transmititzeko beste bide batzuk.

– Erromatar gizartearen marko geografikoa eta historikoa: kokaleku, pertsonaia eta gertaera historiko nagusiak.

– Erakundeak eta eguneroko bizitza. Haien erreferenteak gure ikuspegi soziokulturaletik interpretatzea.

sobre en el ámbito de la Comunidad Autónoma, con el fin de valorar y tomar conciencia de los beneficios y posibles perjuicios que pueden acarrear.

13.1.– Identifica y compara el uso en el tiempo de los materiales sin transformar (tierra, madera, piedra, etc.) y los materiales procesados (metales, cerámica, vidrio, hormigón, plásticos, composites...) en la construcción, artesanía, y en otros usos.

13.2.– Ejemplifica el uso de dichos materiales y algunas soluciones tecnológicas específicas en la cultura material de Euskal Herria, tanto histórica (casa vasca, pesca, agricultura, artesanía e industrias tradicionales), como actuales.

13.3.– Identifica y compara las fuentes de energía y las distintas tecnologías (fuerza humana, animal, mecánica, eléctrica, electrónica...) que se han dado en la historia y se dan en la actualidad.

13.4.– Especifica el uso de las fuentes de energía y las distintas tecnologías para solucionar algunos problemas de producción tradicionales (minería, herrería, caleros, ferrerías, molinos...) y actuales en Euskadi».

Setenta y nueve.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Tecnologías. Curso cuarto. Contenidos.

El Bloque 7 de contenidos queda redactado de la siguiente manera:

«Bloque 7. Tecnología y Sociedad.

– Tecnología como respuesta a las necesidades humanas. Evolución de objetos y técnicas con el desarrollo de la Ciencia, la Tecnología y la Sociedad. Ejemplos de producciones tecnológicas en el entorno. Centros tecnológicos en Euskadi.

– Aportaciones de la tecnología al desarrollo económico, cultural y social.

– Profesiones y competencias tecnológicas asociadas.

– Tecnología y Medio Ambiente. Adquisición de hábitos de desarrollo sostenible».

Ochenta.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Latín Contenidos.

El Bloque 4 de contenidos queda redactado de la siguiente manera:

«Bloque 4. Otras vías de transmisión del mundo clásico.

– El marco geográfico e histórico de la sociedad romana: principales enclaves, personajes y acontecimientos históricos.

– Las instituciones y la vida cotidiana. Interpretación de sus referentes desde nuestra perspectiva socio-cultural.

– Erromanizazioaren aztarna materialak. Erromatar arkeologia- eta arte-ondarearen zuzeneko eta zeharkako behaketa.

– Latindar mitologia literaturan eta arte plastikoe-tan nahiz ikusizkoetan.

– Latindar literaturako idazlan eta idazle nagusiak, mendebaldeko kulturaren oinarri literarioa osatzen dutenak».

Laurogeita bat.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Latina.

8.4 ebaluazio-irizpidea honela idatzita geratu da:

«Latindar hizkuntzak eta ohiturek Euskadin duten asimilazio-maila aztertzen du, eta idatziz edo ahozko eztabaida batean azaltzen du».

Laurogeita bi.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Kultura klasikoa. Helburuak.

4. eta 9. helburuak honela idatzita geratuko dira:

«4.– Arrazoiak emateko eta kritika egiteko gaitasuna garatzea, geure kultura-tradizioa ezagutuz eta harekiko interesa eta errespetua sustatuz.

9.– Mundu klasikotik jaso den kultura-, arte-, historia- eta arkeologia-ondarea balioestea eta errespetatzea, ondare hori zaintzeak dakarren ardura onartzea eta ondarea balioestea, gozatzeko iturria eta norbera eta taldea garatzeko baliabidea den aldetik».

Laurogeita hiru.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Kultura Klasikoa. Edukiak.

Edukien 4. multzoa honela idatzita geratu da:

«4. multzoa. Grekolatindar zibilizazioak bizirik dirau gaur egungo munduan.

– Greziarrak eta erromatarrak Hispanian.

– Arkeologiaren bidez mundu klasikoa ezagutzea. Greziar eta erromatar aztarnategi arkeologiko nagusiak.

– Erromanizazioaren aztarnak eta hondakin arkeologikoak Euskadin.

– Grekolatindar kultura gaur egungo arteetan eta zientzietan. Grekolatindar jatorriko generoak, gaiak eta pertsonaiak gaur egungo literaturan».

Laurogeita lau.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Kultura Klasikoa. Ebaluazio-irizpideak.

– Las huellas materiales de la romanización. Observación directa e indirecta del patrimonio arqueológico y artístico romano.

– La mitología latina en la literatura y en las artes plásticas y visuales.

– Obras y autores principales de la literatura latina como base literaria de la cultura occidental».

Ochenta y uno.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Latín.

El criterio de evaluación 8.4 queda redactado de la siguiente manera:

«Analiza el grado de asimilación de la lengua y las costumbres latinas en Euskadi y las expone por escrito o en un debate oral».

Ochenta y dos.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Cultura Clásica. Objetivos.

Los objetivos 4 y 9 quedan redactados de la siguiente manera:

«4.– Desarrollar la capacidad de razonamiento y de crítica mediante el conocimiento de nuestra tradición cultural específica, fomentando una actitud de interés y respeto hacia ella.

9.– Apreciar y respetar el patrimonio cultural, artístico, histórico y arqueológico heredado del mundo clásico, asumiendo la responsabilidad que supone su conservación y apreciándolo como fuente de disfrute y como recurso para el desarrollo individual y colectivo».

Ochenta y tres.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Cultura Clásica. Contenidos.

El Bloque 4 de contenidos queda redactado de la siguiente manera:

«Bloque 4. Pervivencia de la civilización grecolatina en el mundo actual.

– Presencia de griegos y romanos en Hispania.

– El descubrimiento del mundo clásico a través de la arqueología. Principales yacimientos arqueológicos griegos y romanos.

– Huellas de la romanización y restos arqueológicos en Euskadi.

– Presencia de la cultura grecolatina en las artes y las ciencias actuales. Pervivencia de géneros, temas y personajes de origen grecolatino en la literatura actual».

Ochenta y cuatro.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Cultura Clásica. Criterios de evaluación.

11.1 ebaluazio-irizpidea honela idatzita geratu da:

«11.1.– Kokatu Espainiako mapa batean grekola-tindar eraikin eta monumentu garrantzitsuenak, bereziki Euskal Autonomia Erkidegokoak».

Laurogeita bost.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Erljioen historia eta kultura. Lehenbiziko mailatik hirugarrenera. Edukiak.

Erljioen historia eta kultura ikasgaiko edukiak honela idatzita geratuko dira:

«– Iritzia, arrazoiketa, argudiaketa. Balio-judizioak eta egitate-judizioak. Judizio arrazoitua egitea.

– Sinesmen-aniztasuna: erljioak egungo munduan.

– Erljioaren jatorria: magia eta erljioa. Pentsamendu animista eta haren biziraupena. Mitoak, errealitatea azaltzeko modu. Politeismoa. Bizitza heriotzaren ondoren.

– Erljioak antzinako Ekialde Ertainean. Zoroastro eta haren eragina judaismoan eta kristautasunean.

– Erljio monoteistak: judaismoa. Biblia eta beste liburu sakratu batzuk. Oinarrizko elementuak: errituak, egutegia eta jaiegunak, lekuak eta ikurrak. Judaismoaren egungo egoera.

– Kristautasuna. Kristautasunaren aurrekariak. Jesusen irudia. Dogmak eta sinesmenak. Itun Zaharra eta Itun Berria. Eliza kristauaren antolaketa. Oinarrizko elementuak. Bilakaera, denboran zehar: ortodoxoak, katolikoak eta protestanteak. Kristautasuna gaur egun.

– Islama. Mahomaren irudia. Islamaren bost oinarriak. Korana eta islamiar Legea. Antolaketa eta hierarkia. Oinarrizko elementuak. Islamaren bilakaera historikoa: sunitak eta xiitak. Sufismoa. Islama egungo munduan.

– Ekialdeko erljioak: hinduismoa, budismoa eta xintoismoa, lamaismoa, etab.

– Jainkotiartasuna Euskal Herrian: iragana eta oraina. Pentsamendu askea eta erljio-tradizioa. Kulturartekotasuna eta jainkotiartasuna egungo euskal gizartean.

– Erljioen egungo proposamenak eta ekarpen historikoak kritikoki balioestea, hainbat dimentsio sozio-kulturaletan.

– Emakumea eta erljioa: judaismoa, islama, kristautasuna. Emakumearen berdintasuna gizarte demokratikoan, eta ezberdintasuna erljioan.

– Erljioaren aurreko erantzunen aniztasuna: pertsona sinestunak, pertsona ateoak, pertsona agnostikoak».

El criterio de evaluación 11.1 queda redactado de la siguiente manera:

«11.1.– Sitúa en un mapa de España los lugares donde se encuentran las construcciones y monumentos grecolatinos más importantes, especialmente los de la Comunidad Autónoma».

Ochenta y cinco.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Historia y cultura de las religiones. Cursos primero a tercero. Contenidos.

Los contenidos de Historia y cultura de las religiones quedan redactados como sigue:

«– Opinión, razonamiento, argumentación. Juicios de valor y juicios de hecho. Elaborar un juicio razonado.

– La diversidad de creencias: las religiones en el mundo actual.

– El origen de la religión: magia y religión. El pensamiento animista y su pervivencia. Los mitos como explicación de la realidad. Politeísmo. Vida después de la muerte.

– Las religiones en el antiguo oriente medio. Zoroastro y su influencia en el judaísmo y en el cristianismo.

– Las religiones monoteístas: Judaísmo. La Biblia y otros libros sagrados. Elementos básicos: rituales, calendario y las fiestas, espacios y símbolos. La situación actual del judaísmo.

– Cristianismo. Antecedentes del cristianismo. La figura de Jesús. Dogmas y creencias. El antiguo y nuevo Testamento. Organización de la iglesia cristiana. Elementos básicos. Evolución en el tiempo: ortodoxos, católicos y protestantes. El cristianismo en la actualidad.

– Islam. La figura de Mahoma. Los cinco pilares del Islam. El Corán y la Ley islámica. Organización y jerarquía. Elementos básicos. Evolución del Islam histórica: sunnís y chiís. El sufismo. El Islam en el mundo actual.

– Las religiones orientales: hinduismo, budismo y shintoismo, lamaismo, etc.

– La religiosidad de Euskal Herria: pasado y presente. El libre pensamiento y la tradición religiosa. Interculturalidad y religiosidad en la actual sociedad vasca.

– Valorar críticamente las propuestas actuales y las aportaciones históricas de las religiones en diferentes dimensiones socio culturales.

– Mujer y religión: judaísmo, islam, cristianismo. La igualdad de la mujer en la sociedad democrática y la desigualdad en la religión.

– La diversidad de respuestas ante el hecho religioso: personas religiosas, personas ateas, personas agnósticas».

Laurogeita sei.– V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Erlijioen historia eta kultura. Lehenbiziko mailatik hirugarrenera. Ebaluazio-irizpideak.

1. ebaluazio-irizpidea honela idatzita geratuko da:

«1.– Erlijio-aniztasuna azaltzea munduan eta Euskadin, eta erlijio handien egungo banaketaren oinarritzko ezaugarriak ezagutzea.

1.1.– Ea deskribatzen dituen egungo erlijioen oinarritzko ezaugarri orokorrak.

1.2.– Ea adierazten dakien erlijio horiek nola banatuta dauden.

1.3.– Ea lotzen duen euskal gizartearen erlijio-aniztasuna, gizarte kulturantzei dagokien kultura aniztasunarekin.

1.4.– Ea positiboki onartzen duen erlijio-aniztasun hori pertsonen eskubidea den aldetik.

1.5.– Ea arbuiatzen duen erlijio-zorroztasuna».

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren bigarren Azken Xedapenak aurreikusten duen moduan, 2008-2009 ikasturtean Euskara eta Literatura ikasgaia Banakako Lan Plan baten barruan egin duen eta 2009-2010 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatuta dagoen ikaslea ebaluaziotik salbuetsia egongo da DBHko 3. eta 4. mailako ohiko eta ezohiko deialdi-etan.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egin da 295/1998 dekretua, azaroaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzekoak diren ikasmaterialen onespenez arautzen duena, dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoa bada.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 30ean.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Ochenta y seis.– Anexo V. Educación Secundaria Obligatoria. Historia y cultura de las religiones. Cursos primero a tercero. Criterios de evaluación.

El criterio de evaluación 1 queda redactado como sigue.

«1.– Explicar la pluralidad religiosa en el mundo y en Euskadi e identificar los rasgos fundamentales de la distribución de las grandes religiones en la actualidad.

1.1.– Describe las características generales básicas de las religiones actuales.

1.2.– Señala la distribución de esas religiones.

1.3.– Relaciona la pluralidad religiosa de la sociedad vasca con el fenómeno de la diversidad cultural propia de las sociedades multiculturales.

1.4.– Acepta positivamente esa pluralidad religiosa entendida como derecho de las personas.

1.5.– Rechaza la intransigencia religiosa».

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

El alumnado matriculado en Educación Secundaria Obligatoria el curso 2009-2010, que durante el curso 2008-2009 haya cursado Lengua vasca y literatura conforme a un Plan de Trabajo Individual, según lo previsto en la Disposición Final segunda del Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco, será considerado exento de evaluación tanto en la convocatoria ordinaria como en la extraordinaria de los cursos 3.º y 4.º de la ESO.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 295/1998, de 3 de noviembre, por el que se regula la autorización de materiales escolares para su uso en los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en todo lo que resulte contrario o incompatible con el presente Decreto.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de marzo de 2010.

El Lehendakari,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.